

LEZO

AGENDA

Kulturala

2025 // URTARRILA - EKAINA

Elkar
zainduz
Lezo

PROGRAMA
OSOA HEMEN



Lezoko
Unibertsitateko
Udala



Ginuzbanko
Ezta Alkartasuna



ORAIN
KULTURA



SARE4
EUSKADIKO
ARTZAKI SAREA
RED VASCA
DE TEATROS

HAUR ANTZERKIA

Gezala Auditoriumean, ostiraletan, 17:15ean



URTARRILAK

5

Igandea
12:00,
Bekoerrota
kiroldegia

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Katxiporreta. EUSKAL HERRIA EUS. SARRERA 8€

Ostirala iritsi da! Gaur egun berezia da eskolan Txapas irakaslearen azken laneguna delako. Pupu, Lore, Porrotx, Marimotots eta herriko lagunak bizitako abentura eta ikasgaiak ospatzera datoz. Basoa, jolasak, kantuak, irriak eta bihurrikeriak ez dira faltako. Txapasekin beti da ostirala! Jantzi sudur gorria eta zatoz, Txapasen kaxa magikoen sekretuak ezagutzera!



URTARRILAK

24

Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

EURIA

Markeliñe. EUSKAL HERRIA. HITZIK GABE. SARRERA 3€

Zerbait maite eta galtzen dugunean gertatzen zaigunari eta sentitzen dugunari buruz, eta jakina, gainditzeko dugun gaitasunari buruz hitz egiten du Euria lanak.

Giro poetikoan, umore zertzeladez eta ikuste-ezustekoez, protagonistaren eta bi euritakoen elkarbizitza bitxia kontatuko digu hitzik gabeko istorio honek.



OTSAILAK

7

Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

NIRE BELDURRIK MAITEENAK

Maestro Juan. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 3€

Zeren beldur gara beldur garenean? Beldurak beldurra ematen digu? Galdera hauekin obsesionatuta daude Von Simon eta Von Soria zientzialariak. Bere laborategian geure beldurak ezagutu, haiei aurre egin, elkarrekin bizi eta geure beldurren golkorako barre egin ahal izateko formulak estutu, bihurritu eta maneiatzen dituzte.



OTSAILAK

21

Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

SOLO

Roi Borrallas. KATALUNIA. EUS. SARRERA 3€

Pailazo baten habitat naturala eszenatokia da, bere publikoarekin. Baina zer gertatzen da bakarrik geratzen denean? Pasa eta ikusi artista honen ideiak eta erokeriak. Ikus ezazue bakardadetik eta errutinatik irudimenez eta umorez bere burua nola defendatzen duen. Sartu eta ikusi inork ikusten ez duena. Ikuslerik gabeko aktore bat, pailazo bat inork begiratzen ez dionean.

TEATRO INFANTIL



MARTXOAK

14

Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

ROB

Teatre de l'Abast. VALENTZIA. EUS. SARRERA 3€

Rob itsasontzira igo zenean ez zuen jakin inoiz ez zela bueltatuko. Edo, agian, patuak erreserbatuta zeukan leku hori berarentzat. Irla bat non aurkituko duen bakarra bere burua izango den. Bizitza noraezean doanean gure lekua zein den jakitea oso zaila da. Gure bila datozen bitartean, irudimena gure salbamentu-txalupa bihurtzen da.



MARTXOAK

28

Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

ELARA, BIDAIA BAT IZARRETARA

Mar Mar Teatro. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 3€

Elarak goizegi ezagutuko du galera hitzaren esanahia. Bere gertuko bat izarren hauts bihurtuko da. Horregatik Elarak erabaki du haren bila joatea galaxiarik galaxia eta planetarik planeta. Bidaia espazial bezain espeziala egingo du bizitzaren zentzua ulertu nahian, horretarako doluaren faseak (eta desfaseak) zeharkatu behar baditu ere.



MAIATZAK


16

Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

ZEPO ZAPO

Markeliñe. EUSKAL HERRIA. HITZIK GABE. SARRERA 3€

Zepo gerrara joan zen eta han bera bezalako beste bat aurkitu zuen, baina desberdina. Bi soldadu etsai aurrez aurre. "Gaiztoa" bestea da. Bestea da arrotza eta kanpotarra. Baina horrela pentsatzen dute biek. Zer egingo dugu orduan? Keinu bidezko ikuskizuna, familientzako, edozein gerraren istorioa kontatzen duena.



EKAINAK

14
15

Larunbata eta
igandea, 12:00
Gezala Auditoriuma

ORRATX TXIKI

Orratx!. EUSKAL HERRIA. EUS. DOAKOA

Kurtsio bukaerako emanaldia eskainiko du Orratx! Txiki antzerki taldeak.

HAUR ZINEMA //////////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 17:00etan

CINE INFANTIL



URTARRILAK

25

Larunbata
17:00,
Gezala
Auditoriuma

PATRICK

Patrick izeneko hegala bakarrek tximeleta ausart eta maitagarri bat atoi batean ezkututzen da bere bizitzako bidaia egiteko. Bere lagunak onenarekin, Marty izeneko beldarrarekin, eta Jenniferrekin, altuerari beldur dion tximeletarekin, ustekabeko heroi bihurtuko da. Baina, horretarako, bere beldur handienari aurre egin eta bere berezitasuna onartu beharko du zoritzararren gainetik garaile ateratzeko.



OTSAILAK

15

Larunbata
17:00,
Gezala
Auditoriuma

LAGUNAK ERRESKATERA

Superbilau misteriotsu batek urarekin kontaktuan eztanda egiten duen apar arrosa toxiko batekin estaltzen du oihana. Orduan, lagunak erreskatera ateratzen dira. Euriteen sasoiatik hila baina gutxiagora, hasi da lasterketa! Gure heroiak mundu osoan zehar ibiliko dira antidoto baten bila. Iparraldeko eskualde urrunetatik, Europatik, Asiatik eta Ekialde Ertainetik igaroz, historiako bilaketarik handiena egingo dute.



MARTXOAK

22

Larunbata
17:00,
Gezala
Auditoriuma

RABBIT ACADEMY, PAZKO ARRAUTZEN LAPURRETA HANDIA

Maxek bere helburua lortu du: lehen untxi kaletarra izango da Pazko untxiek beren maisu eskolan onartuko dutena. Berak eta lagunak nork bere super boterea aurkitu beharko dute, Pazkoa babesteko. Baina orduan Pazko untxien urrezko arrautza belztu egin da... eta horrek esan nahi du Pazkoa arrisku larrian dagoela!



MAIATZAK

17

Larunbata
17:00,
Gezala
Auditoriuma

MIGRAZIOA, BIDAIA AHATEZINA

Mallard familia putzuan geratu da. Aita Mackek bere familia Ingalaterra Berriko urmaelean zaintzea atsegin du, baina ama Pamek gogo handia du bizitzaz gozatzeko eta bere seme-alabei mundua bere osotasunean erakusteko. Ahate migratzaile familia bat leku urrunetako istorio zoragarriekin iristen da urmaelera eta orduan Pamek Mack konbentzitzea lortzen du Jamaika tropikalera bidaiatzeko, baina gauzak ez dira espero bezala ateratzen.

ZINEMA FAMILIAN //

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 19:00etan

CINE FAMILIAR



OTSAILAK

15

Larunbata
19:00,
Gezala
Auditoriuma

INDARKERIAREN OI(H)ARTZUNAK

Itzal luzea eta zauri sakonak utzi ditu Euskal Gatazka izenez ezagututakoak, eta horiek ezagutzara emateko, salatze, aldarrikatzeko eta hausnarketari bide emateko baliatu dituzte hainbat sortzailek bateko zein besteko arte adierazpideak. Zinema alorrean, gatazkaren ertzak, kontra-historiak, isildutako istorioak eta kezak jorratuz eratu dute, adibidez, Amaia Merino eta Ander Iriarte zuzendariak beren filmografia.



MARTXOAK

22

Larunbata
19:00,
Gezala
Auditoriuma

ITOIZ, UDAKO SESIOAK

Argitaratu gabeko zintzen aurkikuntzak Juan Carlos Pérez, ITOIZ talde ikonikoaren burua, taldea bere unerik gorenean desagiteari buruz hausnartzera eraman du, gaur egun oraindik ere ukatzen duen pop-erako estilo-aldaketaren ondoren. Juan Carlosek taldearen esentziarako bidaia katarikoa hasiko du, eta taldearen hasiera 1970eko hamarkadako Mutrikuko rock talde progresibotzat hartuko du, iraganarekin adiskidetzeko baliatuz.



Gezala Auditoriumeko LAGUN TXARTELA



PREZIOA:

25€ [Gazte Txartelarekin 20€]

Salgai jarritako txartelen kopurua mugatua izango da eta urteko balioa izango dute.

ABANTAILAK:

1. %30eko deskontua Gezala Auditoriumean programatzen den ekitaldi orotan.
2. Urteko programazioaren barruan, **doako bi kontzertu eta doako bi dantza-emanaldi aukeran.**
3. Ostiraletako haurrentzako ekitaldietan, bi sarrera bikoitz doan.
4. Emanaldiko doako 4 sarrera zozketatuko dira.

PRECIO:

25€ (con Gazte Txartela: 20€)

El número de tarjetas a la venta será limitado y su validez será anual.

VENTAJAS:

1. 30% de descuento en toda la agenda cultural del Auditorium Gezala.
2. Dentro de la programación anual, **dos conciertos y dos actuaciones de danza gratuitas a elegir.**
3. En los actos infantiles de los viernes, dos entradas dobles gratuitas.
4. Por cada evento se sortearán 4 entradas gratis.

DANTZA / MUSIKA / ANTZERKIA //

Gezala Auditoriumean, igandeetan, 19:30ean



URTARRILAK

12

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

ZORRETAN

Hika Antzerkia. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

EMAKUMEA eta GIZONA bikote dira aspalditik. Gaur EMAKUMEA aztoratuta iritsi da etxera. Amarekin telefonoz hitz egin du eta beraiekin bizitzera datorrela ulertu dio. Uste du hori dela bere egonezinaren arrazoi eta etxera iristean, GIZONARI kontuak eskatzen hasiko zaio. Hau ere ez dago bere onenean, ordea.



URTARRILAK

26

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

OLVIDO FLORES

Estefanía de Paz Asín. EUSKAL HERRIA. CAST. 8€

1936ko uztailaren 18an, gerra zibilari bide eman zion Errepublikaren aurkako altxamendu kolpistarekin batera, Lodosara iritsitako Anastasini Zirkuko 50 artistaren taldea desagertu egin zen arrastorik utzi gabe. Diotenez, batzuk fusilatu egin zituzten eta gainerakoak tropak entrenitzera behartu zituzten.



OTSAILAK

2

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

ON DO KO

Mafalda Saloio. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

On Do Ko antzerki-dantza ikuskizun bat da, komunitatearekin sortzen dena. Leku bat, auzo bat, ingurune bat, non bizilagunekin elkarbizitzen den. Auzoa, askotan, hiriarren erritmoa adierazten duen tanborra da; bizitzaren bihotz handia gordetzen duena. Hemen, etxetik gertu dagoen mugimendua berrantolatzen da, baina aldi berean, hiri handiaren erritmo anonimoak jarraitzen du.



HEISENBERG
SIMON STEPHENSena

OTSAILAK


9

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

HEISENBERG

Ttanttaka. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Clare Burns, 42 urteko emakume bat, eta Alex Priest, 72ko gizon bat, Londresko Saint Pancras geltokian ezagutuko dira. Atzetik ikusita, Clarek usteko du Alex bere aita dela (urtebete da hil zela) eta eraldi "absurdo" batean musu emango dio garondoan. Topaketa berotzaile hori izango da biei bizitza aldatuko dien jolas zoragarri baten hasiera.



OTSAILAK

16

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

DAMUTZEN NAIZ

Node. EUSKAL HERRIA EUS. SARRERA 8€

Elkarrizketa fisikoak mugimendu performatikoan. Damu dugu titulu hau. Damu gara damua proiektu hau martxan jartzeko piperra izatea. Izan ere, norberaren damuak onartzera iristea aitorleku baten anonimotasunean, egunkari baten isiltasunean edo heriotzaren aurrean egiten den zerbait da. Eta gu prest gaude argi eta garbi gure damuak jendearekin partekatzeko.



OTSAILAK

23

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

ARIZONA

Txalo. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Georgek eta Margaretak beren mugak defendatu behar dituzte. Bizilagunak hor daude, zelatan... Baina, Margaret galdera gehiegi egiten hasten denean, komedia musikala, bere bizitza zena, tragedia basati bihurtzen da. Arizona ez dago hain urruti. Arizona hemen dago, Ceutan, Melillan, gure hiri bakoitzean, gizaki batek bizitza hobea lortzea eragozteko altxatzen den harresi bakoitzean.



MARTXOAK

9

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

FEMINISSIMAS

De Ste Xeito. GALIZIA. CAST. ENTRADA 8€

Un Congreso Feminista en la ciudad de Vigo. Tres amigas de la adolescencia que hace años que no se ven. Tres amigas que tienen tres maneras muy distintas de entender el "feminismo"... Por ejemplo: feminismo radical, feminismo liberal y postfeminismo. Una comedia negra... muy violeta.



MARTXOAK

30

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

LANA

Osa+Mujika. EUSKAL HERRIA EUS. SARRERA 8€

Lana, arrakasta, balioa edo estatusa bezalako kontzeptuekin lotzen dugu. Garrantzitsua edo ezinbestekoa izatearen sententzia liluragarria da; baina hain arrakastatsua bazara, zergatik jarraitzen duzu astean 40 orduetik gora lanean?

Lanak denok harrapatuta gaituen lan-kultura obsesiboa islatuko du, txikitatik eta ia heriotzaraino irauten duen tranpa.

DANTZA / MUSIKA / ANTZERKIA ////////////////

Gezala Auditoriumean, igandeetan, 19:30ean

DANZA / MÚSICA / TEATRO



APIRILAK

11

Ostirala
19:30,
Gezala
Auditoriuma

HEGOAK

Kulunka Teatro. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Garbiñe Insausti abeslari eta aktoreak eta Iñaki Salvador pianista ezagunak bat egingo dute HEGOAK izeneko musika-ikuskizuna eskaintzeko. Emozioz betetako bidaia musikatu izango da, eta Mikel Laboaren edo Imanolen abestiak joko dituzte; pixkanaka, beste leku batzuetako soinu eta abestietara hurbilduko gaituzte. HEGOAK ez da kontzertua soilik, antzerki-proposamena ere bada.



APIRILAK

13

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

ARTEA

Txalo. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Artea hiru lagunen arteko komedia da. Sergiok dirutza balio duen koadro moderno bat erosi du. Marcosek gorroto du koadroa, gainera ezin du sinetsi Sergiori koadroa benetan gustatzen zaionik. Ibon, Marcos eta Sergioren arteko desadostasunean bitartekari izaten saiatzen da.



MAIATZAK

18

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

RENATA

Kamikaz kolektiboa. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Renata hil eta berpiztu egin da. Etengabe hil eta berpizten da, aste honetan 115 aldiz egin du. Ezezaguna komunitate zientifikoarentzat; Jainkoa beste askorentzat. 116 zenbakira iritsi berri da, loreontzi bat buruan erori baitzaio. Lasai, minutu bat barru bizitzara itzuliko da.



EKAINAK

28
29

Larunbata eta
igandea, 19:30,
Gezala Auditoriuma

BIDAIA GALDUAK


Orratx!. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Shakespearean eta Lorcaren emakumeek bidaia luze bati ekingo diote, nork bere maleta zaharra hartuta, bizi-esperekiez betetik.

LITERATUR SOLASALDIAK //

Asteartean 18:30ean, GAZTELERAZ
Asteazkenetan 18:30ean, EUSKARAZ

Udal liburutegian **CHARLAS LITERARIAS**



URTARRILAK
28

CAST

EL PASEO

ROBERT WALSER



OTSAILAK
26

EUSK

FESTA ALDAMENEO GELAN

MARIASUN LANDA



MARTXOAK
25

CAST

NADA

CARMEN LAFORET



APIRILAK
30

EUSK

HORMAKO PAPER HORIA

CHARLOTTE PERKINS GILMAN




MAIATZAK
27

CAST

LOS CABALLEROS LAS PREFIEREN RUBIAS

ANITA LOOS



Euskarazko solasaldiak **Ane Mayo**zek dinamizatuta izango dira.
Gaztelerazkoak, **Javier Mina**k.

Las charlas en euskera serán dinamizadas por **Ane Mayo**.
Las del castellano, por **Javier Mina**.



DESKARGATU LEZOKO APP-A

Agenda osoa, sarrerak
erosteko aukera eta
beste gauza asko
kulturako APPan.

DESCARGATE LA APP DE LEZO

Toda la agenda, opción de
compra de entradas y
muchas cosas más en la
APP de cultura.

IPUIN KONTAKETAK //////////////////////////////////////

Udal liburutegian asteazkenetan, 18:15ean

CUENTA CUENTOS



MARTXOAK
19

18:15
liburutegian
4-7 urte

AMELI

EGUTEGI BATEAN KABITZEN DENA



MARTXOAK
26

18:15
liburutegian
4-7 urte

MAITE FRANKO

ALUZINESKAK



APIRILAK
2

18:15
liburutegian
4-7 urte

INES BENGOA

ILGORA, ILBEHERA



APIRILAK
9

18:15
liburutegian
4-7 urte

DORLETA KORTAZAR

AMETSETAN



MAIATZAK
7

18:15
liburutegian
4-7 urte

MIKEL SUSPERREGI

BAINA... NOR DA AXERKO?



MAIATZAK
14

18:15
liburutegian
4-7 urte

PELLO AÑORGA

BURUMALO



MAIATZAK
21

18:15
liburutegian
4-7 urte

IXABEL AGIRRESAROBE

TXANTXANGORRIA TXANTXATE



MAIATZAK
28

18:15
liburutegian
4-7 urte

IZASKUN MUJIKA

IPUINEN HARIA

LESOINU

MARTXOA

29	13:00	HALLOS SAXOFOI LAUKOTEAREN KONTZERTUA	Gurutze Santuaren Plaza
29	19:00	OXYGEN SAXOFOI LAUKOTEAREN KONTZERTUA	Gezala Auditoriuma

APIRILA

4	17:15	OSTOMILA TXOTXONGILO TALDEAREN EMANALDIA	Gezala Auditoriuma
5	19:00	USANSOLO (GALDAKAO) ETA SUTARGI (LEZO) ABESBATZAK	Gurutze Santuaren basilika
5	20:00	“TOMAS GARBIZU” LUME-KO BANDAREKIN KALEBUELTA	Kalebuelta
6	11:00	DIANA “TOMAS GARBIZU” LUME-KO TXISTULARIEKIN	Herritik zehar
8	10:30	“TOMAS GARBIZU” MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUA	Gezala Auditoriuma
9	19:00	LEZOKO ZINEMA TTIKIA	Gezala Auditoriuma
10	10:30	“TOMAS GARBIZU” MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUA	Gezala Auditoriuma
11	10:30	IPUIN MUSIKALA “TOMAS GARBIZU” L.-KO TALDEEKIN	Gezala Auditoriuma
11	19:00	“HEGOAK” ANTZERKI MUSIKALA	Gezala Auditoriuma
12	12:30	KANTUJIRA	Aiton Bordatik abiatuta
12	19:00	DUOVENTO ENSEMBLE (AKORDEOIA & SAXOFOIA)	Gezala Auditoriuma

MAIATZA

11	19:00	KONTARI-LANDARBASO ABESBATZA	Gezala Auditoriuma
-----------	--------------	-------------------------------------	---------------------------

OHARRA:

Leku, ordu eta datetan aldaketak egon daitezke; hala ere, jarduera bakoitzaren aurretik, behar bezala jakinaraziko ditugu.

NOTA:

Las fechas, horarios y lugares son susceptibles de modificación; no obstante, antes de cada actividad se informará debidamente de la organización de las mismas.

AGENDA Kulturala

2025 //
URTARRILA
EKAINA

0731

	URTARRILA ENERO	OTSAILA FEBRERO	MARTXOA MARZO	APIRILA ABRIL	MAIATZA MAYO	EKAINA JUNIO
HAUR JARDUERA TEATRO INFANTIL	5, 24	7, 21	14, 28		16	14, 15
HAUR ZINEMA CINE INFANTIL	25	15	22		17	
ZINEMA FAMILIARRA CINE FAMILIAR		15	22			
DANTZA DANZA		16	30			
ANTZERKIA TEATRO	12, 26	2, 9, 23	9	11, 13	18	28, 29
IPUIN KONTAKETAK CUENTA CUENTOS			19, 26	2, 9, 7, 14, 21, 28		
LITERATUR SOLASALDIAK CHARLAS LITERARIAS	28	26	25	30	27	
LESOINU			29	4-12	11	